

ASKE IZAN? MENPERATUA IZAN?

Gaurko bizitzak hona, hara eta bestera garamatza, eten gabe, hausnartzeko astirik ematen ez digula eta, ondorenez, gure bizitzari, patxadazko bide egoki bat jartzeko aukerarik utzi gabe.

Zer hausnartu asko dugu denok. Gai mordoia dago berari buruzko hausnarketa asko eta sakonak eskatzen dituena.

Beraietako bat izan liteke gure askatasun edo menperatasun arloa.

Ezerk benetako emakume edo gizon osoak eta jatorrak egiten bagaitu, aske izateak da, hau edo bestea aukeratzeko ahalmena izateak. Jainkoak berak, kristautasunak erakusten digunez, azkengabeko begirune osoa dio gure askatasunari eta gure aukeratzeko ahalmenari. Gai garrantzitsua, bada, gure askatasunarena edo gure menperatasunarena, aske izatean edo menperatua izatean jokatzeko baita gure gizatasuna.

Beraz, ez litzateke txarto egongo guri aske izateko eta aukeratzeko ahalmen hori guri zerk ken diezagukeen edo gu zerk menpera gaitzakeen aztertzea eta jakitea, hori gerta ez dakigun bideak jartzeko.

Ariketa zaila baina onuragarria izango litzateke zerk menpera gaitzakeen igartzea. Dakizkigun zer askok ken diezaguke aukeratzeko ahalmen hori.

Baina gehiago izango dira, agian, guk igarri gabe, gu menpera gaitzaketenak, igarri gabe izan gaitzkeelako menperatuak, ala igarrita.

Milaka gauza izan daitezke gure menperatzaile eta milaka gure askatzaile.

Aztertu, hausnartu, aukeratu, egin behar.

Bat edo beste izendatuko ditut, nire uste apalez, menpera edo aska gaitzaketenak. Ariketa polita eta onuragarria duzu, irakurle, zerorrek osoago eta egokiago aukera ditzazun.

Fede bat edo beste edo federik eza; politika bat edo beste; komunikazio tresnak edo erak; lagunak eta adiskideak; bakoitzaren gaitasunak...

Horiek guztiok, batera edo taldeka edo banan-banan, zer eragiten dute gugan? Askatu? Menperatu?

Izatez, badakigu gure zerbitzurako direla guztiok eta jar gennitzakeen beste horrenbeste.

Baina, gure askatasunerako erabiltzen ote ditugu? Ala, menperatu egiten ote gaituzte?

Badugu zeregina eta aukeratu beharra zerk edo zertzuk egiten duten gu aske izatea, menperatu beharrean.

Edozerk eta edonork aske egiten nauen edo nire askatasunari begirune dion neurrian, gizaki osoago egiten nau. Menperatzen nauen edo askatasuna kentzen didan neurrian, ordea...

Juan Bizente Gallastegi